

Eibarko Udalak Robotikan inguruko tailer teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko. Robotak erabiliaz diseinatzeko, eraikitzen eta programatzeko ikasiko dute Lego Mindstorms EV3, MAKEblock eta bideojokoak egiteko plataformak erabiliz, nerabeen inteligentzia, gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen duten bitartean.

**Tramitatzailea:** Garapen ekonomikoa, enplegu eta berrikuntza Saila.

**Hartzaileak:** LH 5. eta 6. mailakoentzat

**Ikastaroaren prezioa:**

**28€** ( Eibarren erroldatuak)

**47€** ( Eibartik kanpokoak)

**Ikastaroaren ordainketa:** Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

**Nork emango du:** DOPLAY

**Non:** Jazinto Olabeko ludoteka

**Datak:** abenduak 2, 9, 16 eta 23

**Ordutegia:** 18:00etatik 20:00etara.

**Ikasle kopurua:** gutxienez 5 ikasle, eta gehienez 15 ikasle

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskaraz.

**Eskaera egiteko epea:** azaroaren 15etik 24ra

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

## Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura) eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

**NAN** dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

## Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura)), 2017ko **azaroaren 27an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da.** Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **azaroaren 28an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean egongo da **azaroaren 28an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

**Informazio gehiago:** 943 708 435